



ALDAKETARAKO AUTODIAGNOSTIKO TRESNA



**Helduak
Zabaltzen**

EUSKO JAURLARITZA

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

NONDIK DATOR TRESNA HAU?

Eusko Jaurlaritzak eta Euskofederpenek bultzatutako ekimena da **Helduak Zabaltzen**, eta **adinekoen gizarte zentroen** eredua eraldatu eta egokitzeke eta digitalizazioan laguntzeko sortu da. Haren helburu nagusia da zentroak egungo eta etorkizuneko adinekoen beharretara egokitzea.

Proiektuak **esperientzia pilotuak** jarri ditu abian **hiri inguruneetan (Eibarren eta Erandion) eta landa inguruneetan (Kanpezun eta Arratzun)**, Euskadin adinekoen gizarte zentroen eredu berriak martxan jartzea helburu duen partaidetza prozesua aktibatzeke.

Material hau Adinekoen Gizarte Zentroak Eraldatzeko Tresnen barruan dago.

Autodiagnostiko tresna honek zenbait galdera biltzen ditu, zentroaren egungo egoerari buruzko gogoeta sorraraztearren. Helburua autodiagnostikoa ahalbidetzea da, eta, horrela, gizarte zentroa eraldatzeko prozesuan hobekuntza arlotzat har daitezkeen gaietan arreta jartzen laguntzea.

Galde sorta lehen pertsonan idatzita dago, eta gizarte zentroan inplikaturako pertsonak bete dezaten pentsatuta, edozein dela ere pertsona horiek zentroan duten eginkizuna.

Jarraibideak:

1. Irakurri galderak, hausnartu horiei buruz eta erantzun laukietan

Jarraian, zentroei buruzko gogoeta piztuko duten galdera batzuk egingo dizkizuegu, taldean erantzun ditzazuen.

Galdera bakoitzak etiketa bat edo bi ditu ezkerrean. Etiketa horiek lotura zuzena dute galde sortaren bukaeran termometro gisa aintzat hartzen diren alderdiekin. Bost alderdi dira: aniztasuna, parte hartzea, udalarekiko harremanak, gobernantza eta komunitateari irekitzea. Hurrengo orrialdean, alderdi horietako bakoitzaren definizioa eman dugu, ulertzen eta betetzen laguntzeko.

Galde sortaren lehen zatia bukatutakoan —hau da, hausnartzeko eta erantzuteko galderei erantzun ondoren—, tresna hau erabiltzen nola jarraitu azalduko dizuegu.

Alderdien definizioak

Aniztasuna

Zentroak adinekoen askotariko profiletara egokitzeko duen gaitasuna, adinekoen funtsezko ezaugarriak kontuan hartuta, hala nola generoa, adina, gaitasunak zein laguntza premiak, ahultasun egoerak, interesak, egoera sozioekonomikoa eta abar. Askotariko profilei erantzuteko, programak, baliabideak, zerbitzuak, espazioak eta parte hartzeko aukerak eskaintzen zaizkie adinekoei, modu inklusiboan.

Parte hartzea

Parte hartzea ez da mugatzen erabiltzaileei gai jakin batzuei buruz galdetzera. Horrez gain, aukera eskaini behar zaie zentroaren inguruko erabakietan inplikatzeko; hau da, beren premia eta interesen arabera gai hauetan erabaki nahi duten esateko: zentroaren proiektuaren eta jardueren diseinuan, ibilbide orrian, arauetan, kudeaketan, dinamizazioan eta jardueren kontsumoan. Hori guztia elkarlanean egin behar da, harreman horizontalen bidez eta elkarrenganako aintzatespenez.

Udalarekiko harremanak

Udalaren eta zentroko koordinazio eta kudeaketa eragileen arteko komunikazioa eta elkarlana.

Gobernantza

Zentroa kudeatzeko eta koordinatzeko zehaztutako eredua, barne hartuta parte hartzaileak, horien arteko harremanak eta erabaki hartzea.

Komunitateari irekitzea

Zentroak duen gaitasuna ingurune hurbileko beste eragile batzuekin sareak ehuntzeko eta komunitateko zein ingurune hurbileko —auzoko edo herriko— erreferentzia izateko. Gai hauek hartzen dira barne: zentrotik kanpoko beste belaunaldi, baliabide eta eragile batzuentzat/batzuekin jarduerak edo ekimenak sortzea eta haiekin elkarlanean jardutea, eta beste erakunde edo publiko batzuen espazioak erabiltzea (eta alderantziz).

Paso 1. pausoa. Galderak: hausnartu eta erantzutea

Zein da gure gizarte
zentroaren asmoa?

Alderdi inplikatu guztiek
ezagutzen eta
partekatzen dute?

Zer egiten da gure
zentroan?

Aniztasuna

Nor etortzen da
zentrora?

Aniztasuna

Nolako profila dute
zentroko pertsonak?

Aniztasuna

Parte hartzea

Zertarako etortzen
dira zentrora?



Heltuak
Zabalitzen

Aniztasuna

Nolakoa da zentrora
lehen aldiz etortzeko
prozesua?

Zer informazio
ematen zaie?

Zer informazio
jasotzen da?

Parte hartzea

Nola jasotzen dira
bazkideen iritziak eta
proposamenak?

Zer bide
erabiltzen dira?

Zer
maiztasunekin?

Parte hartzea

Zer bide daude gizarte zentroan parte hartzeko?

Gobernantza

Aniztasuna

Zuzendaritza Batzordea badago, nolakoa da?

Zenbat urte daramate batzordekideek jardunean?

Nolako profilak daude?

Zenbat pertsona aktibo dago?

Gobernantza

Udalarekiko
harremanak

Zein da udalaren
zeregina? Zertan hartzen
du parte?

Gobernantza

Udalarekiko
harremanak

Nolakoak dira
udalarekiko harremanak?

Nor da udalaren eta
gizarte zentroaren arteko
bitartekaria?

Zein dira udalarekiko
komunikazio bideak?

Gobernantza

Parte hartzea

Nola hartzen dira
erabakiak?

Gobernantza

Parte hartzea

Nola banatzen dira
eginkizunak?



Helduak
Zabalitzen

Komunitateari
irekitzea

Zer erakunde edo
eragilerekin ditu
harremanak gizarte
zentroak?

Komunitateari
irekitzea

Nolakoak dira beste
erakunde edo eragile
batzuekiko harremanak?

Nor da erakunde horien eta
gizarte zentroaren arteko
bitartekaria?

Komunitateari
irekitzea

Nolakoa da gizarte
zentroaren kanporanzko
komunikazioa?

Zein dira zentroaren
kanporanzko
komunikazio bideak?

Komunitateari
irekitzea

Nolako irudia ematen da
zentroari buruz?



Helduak
Zabaltzen

Apertura
comunidad

Parte hartzea

Zer eragilek
hartzen dute parte
zentroaren barruan?

Komunitateari
irekitzea

Parte hartzea

Zer jarduera
sortzen dira beste
eragile batzuekin?

Komunitateari
irekitzea

Zer jarduera egiten
dira zentrotik kanpo?



Helduak
Zabaltzen

Jarraibideak:

2. «Nahi genukeen zentroa» irudikatzea

- Termometroak bete aurretik, komeni da labur-labur hausnartzea nolako gizarte zentroa nahi genukeen, proposatutako bost alderdietako bakoitzari dagokionez (aniztasuna, parte hartzea, udalarekiko harremanak, gobernantza eta komunitateari irekitzea). Pauso horretan, hauxe izango litzateke galdera: Nolako gizarte zentroa nahi genuke gure udalerrian?

Nolako zentroa nahi
genuke adinekoen profil
aniztasuna onartzeari
dagokionez?

Nolako zentroa nahi
genuke erabiltzaileen
parte hartzeko moduei
dagokienez?

Nolako harremanak
izan nahi genituzke
udalarekin?

Nola nahi genuke
jarduerak eta jardun
eremua erabakitzea gure
zentroan?

Nola nahi genuke gure
zentroa auzoarekin eta
beste eragile batzuekin
erlazionatzea?

3. Termometroak betetzea

- Alderdi bakoitzaren termometroa betetzeko, alderdi horri dagokion etiketa duten galderei emandako erantzunak errepasatu behar dira; adibidez, «Parte hartzearen» termometroa betetzeko, «Parte hartzea» etiketa duten galderei emandako erantzunak begiratu behar dira.
- Termometroak betetzean, kontuan hartu behar da egungo zentroa zenbateraino dagoen hurbil edo urrun nahi genukeen zentro idealetik. Horretarako, galdera honi erantzun ahal zaio, hausnartzen laguntzeko: zenbateraino gaude urrun zentro ideal horretatik, aztertzen ari garen bost alderdietako bakoitzean?
- Zenbat eta antzekoagoak izan egungo zentroa eta nahi genukeen zentro ideala, orduan eta gehiago beteko da termometroa; eta, alderantziz, zenbat eta desberdinagoak izan, orduan eta gutxiago beteko da termometroa.

Adibidez: parte hartzea egokia dela uste badut baina iruditzen bazait alderdi horretan badugula zer hobetua eta parte hartzeko beste modu batzuk ireki ditzakegula, honela bete dezakegu termometroa:



2. adibidea: udalarekiko harremanetan asko hobetu dezakegula uste badut, honela bete dezakegu termometroa:



Aldaketarako termometroak, alderdien arabera

Aniztasuna

Nola dago gure zentroa erabiltzaileen aniztasunaren aldetik, nahi genukeenarekin alderatuta?



Parte hartzea

Nola dago gure zentroa parte hartzearen aldetik, nahi genukeenarekin alderatuta?



Udalarekiko
harremanak

Nola dago gure zentroa udalarekiko harremanen aldetik, nahi genukeenarekin alderatuta?



Gobernantza

Nola dago gure zentroa erabakietan parte hartzearen aldetik, nahi genukeenarekin alderatuta?



Komunitateari
irekitzea

Nola dago gure zentroa komunitateari irekitzearen aldetik, nahi genukeenarekin alderatuta?



Galderei erantzundakoan eta proposatutako gogoetekin termometroak bete ondoren, osatutzat eman dezakegu autodiagnostikoa. Horrek esan nahi du zentroari buruzko irudi osatuago bat dugula, alde indartsuak eta hobetzekoak barne hartuta. Diagnostiko osoaren bidean lehen hurbilpena bada ere, ariketa honetan zehar sortutako gogoetak abiapuntu egokia izan daitezke zer eraldaketa mota egin nahi dugun eta prozesu horretan zer arlo lehenetsi nahi ditugun aztertzeko.

Helduak Zabaltzenek bere webgunean (ESTEKA) dauden baliabideak —**Helduak Zabaltzenen Eraldatzeko Tresnak**—jartzen ditu adinekoen gizarte zentroak eraldatzeko gogoetari ekin nahi dioten pertsona guztien eskura. Autodiagnostikorako tresna honen emaitzekin eta antzemandako alde indartsu zein hobetzekoekin, jada prest gaude arreta osoa aldaketan jartzeko. Tresna hau lagungarria izango da zentroa zer egoeratan dagoen eta kasu bakoitzean zer tresna erabiltzea komeni den ikusteko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO